

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako ETEek kanpo-merkataritzako langileak kontratatzeko laguntzak eska ditzakete jadanik

*Enpresa bakoitzeko 15.000 euroko diru-laguntza emango da, deialdiaren 120.000 euroak osatu arte*

Martes, 12 de enero de 2016

Nafarroako Gobernuak astearte honetan zabaldu du epea –otsailaren 12ra arte luzatuko da– nazioartekotze-planak dituzten Nafarroako ETEek kanpo-merkataritzako langileak kontratatzeko laguntzak eska ditzaten. Aurtengo edizioan enpresa bakoitzeko 15.000 euroko diru-laguntza emango da 14.000 euro beharrean, hau da, zenbatekoa igo da.



Profesional bat kontuak berrikusten.

[Oinarriak](#) Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira astelehen honetan, urtarrilak 11, eta eskaerak telematikoki aurkeztu behar dira Nafarroako Gobernuaren Interneteko Atariko zerbitzu-katalogoari dagokion [fitxa](#) bidez ([www.navarra.es](http://www.navarra.es)).

Laguntza horiekin (120.000 euroko aurrekontua dute, guztira), Garapen Ekonomikorako Departamentuak enpresak babestu nahi ditu haien esportazio-prozesuan, azkenean Nafarroako enpresa-sarearen nazioartekotzearen alde eginez, Nafarroako II. Nazioarteko Plana 2013-2016an jasotzen denez.

Deialdia zerga-egoitza Nafarroan izan eta nazioartekotze-proiektu bat duten ETEetarako da. Langile teknikoari dagokionez, espainiarrak edo Europar Batasuneko kide batekoak izan behar dute, eta enpresan lan egin ez izana kontratu formalizatu baino sei hilabete lehenago, praktika edo heziketa eta ikaskuntzako kasuan salbu.

Gainera, murrizketak daude enpresaren jabetzarekin edo zuzendaritzarekin ahaidetasuna izateagatik. Kontratuak urtebete iraungo du gutxienez, mugagabea edo aldi baterako kontratua, baina ez da praktiketako edo heziketa edo ikaskuntzarako izango.